



Udalekuetarako 10.000 plaza eskaintzen dituzte gazte boluntarioek

- Astialdi hezitzailearen eremuan gazteriak egiten duen “askotan ekustezina den lan honen balioa” aldarrikatu du Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
- www.astialdiforooa.org eta www.egk.org atarietan eskegi dute udaleku ireki, kanpaleku, auzolandegi eta nazioarteko topaketen eskaintza

Bilbo, 2015eko maiatzaren 5ean. Euskadiko boluntario gazteek osatzen dituzten astialdi kolektiboek udako kanpaina prestatu dute dagoeneko. Aldundiek eta beste instituzioek antolatzen dituzten udalekuen eskaintzaz gain, **Euskadiko milaka gazte boluntarioek ere, urtero bezala, udako kanpaina antolatu dute.** Horrela, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako **80 taldek 123 udaleku** eta opor-jarduera antolatu dituzte. Guztira, **boluntarioz osaturiko elkarte horiek 10.000 plaza eskaintzen dituzte** udaleku, auzolandegi, topaketa eta bestelako udako ekintzetan parte hartzeko.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) baitan Astialdi Foroan koordinatzen diren federazio eta eskolek proposamen horiek guztiak biltzen dituen gida aurkeztu du gaur, **Udan Astialdia astindu! Ilopean.** Zerrenda bat aurkeztu dute EAE-ko lurralde bakoitzeko, antolatzaileen jatorriaren arabera. Zehazki, **Araban 16 taldek 16 ekintza** prestatu dituzte; **Bizkaian, 42 elkarteek 72 txanda** diseinatu dituzte; eta **Gipuzkoan, 22 erakundek 35 plan** proposatzen dituzte.

Izena-emateko
urratsak
www.astialdiforooa.org
webgunean
zehaztuta daude

Ekainaren 18tik hasita eta abuztuaren 26ra arte, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, **3 eta 30 urte bitartekoentzat**, gustu guztietarako dago: udaleku irekiak auzoan edo herrian, kanpaldi klasikoak Euskal Herrian edo Errioxa, Kantabria eta Huesca bezalako beste toki batzuetan eta kanpaleku ibiltariak kostaldetik eta Done Jakue bidean, besteak beste. Abentura-programak eta beste gazte-talde batzuekin elkartrukeak ere.

Balio erantsia

Eta, hori guztia, **balio erantsiarekin**, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua azpimarratu duenez: “Jarduera hauek *plus sozial* bat dute; izan ere, ikasturtean zehar modu boluntarioan

www.egk.org



lan egiten duten astialdi-taldeek antolatzen baitituzte, eta elkarte horiek elkartegintzatik eta boluntarioratikat abiatutako balio-heziketan eta jendarte eraldaketan sinesten dute”.

Gainera, ez dute udan bakarrik lan egiten: **ikasturtean zehar bere auzo eta herrietan buru-belarri aritzen dira ere**, jende guztiarentzat irekiak diren ekintzetan. Udalekuak, beraz, ikasturtearen gailurra baino ez dira. Planak, astialdi taldeak eta izena emateko epeak www.astialdiforoa.org eta www.egk.org helbideetan daude.

**+info eta elkarrizketak:
688 67 59 32 / 943 429767
Iñaki Goikoetxea Arrufat
EGK-ko komunikazioa**